




RAINBOW



# PROIEKTUA





# ZERTAN DATZA?

---

- Berrikuntza eta garapen-ildo estrategikoak bateratzea, gure testuingurura moldatuta.
- Eskolak barne-antolakuntzan autonomia garatzea (arlotan pedagogikoa, curricularra, espazioen antolaketa, ekonomia eta pertsonal kudeaketan), gure Hezkuntza Komunitatearen premiei erantzuna emateko.
- Irakastorduetatik haratago doa.



# ZERGATIK?

---

- Ikasle GUZTIEN emaitzak hobetzeko.
- Emaitzen hobekuntza, talentua eta gaitasunen garapena sustatzeko.
- Irakaskuntza-ikaskuntza hobetzeko.
- Ikasle bakoitzaren beharrak abiapuntu nagusia izanik, bere garapen akademiko eta pertsonala hobetzeko.



# HELBURUAK

---

---

- Ikastetxeen kalitatea handitzea, autonomia indartuz urratzeko bikaintasunerako bidean.
- Eskola-denboren eta taldekatze eredu berriak erabili eta ebaluatzea.
- Ikastetxeen ekitatea hobetzen laguntzea.
- Jardueren eskaintza, ikasle guztiek hezkuntza-arrakastaren bidea urratzeko eta talentua sustatzeko.
- Eraitzen eta eskola-giroaren hobekuntza sustatzea.
- Ikasleek, eskola-orduetatik kanpo, konpetentziak eskura ditzaten bultzatzea.
- Ikasleen autonomia lantzea.



# ESKOLAKO PROIEKTUEKIN LOTURA

---

---

- Urteko Plana
- Hobekuntza Plana
- Hezkidetza
- Steam
- Irakurketa plana
- Bizikasi
- Hezkuntza inklusiboa
- Aniztasunaren trataera



# HELBURUETAN SAKONDUZ

---

---

- Ikastetxeen **ekitatea** hobetzen laguntzeko jardueren eskaintza bat egitea, familiei **kostu gehigarririk eragin gabe**.
- Ikastetxearen egungo **zerbitzu-eskaintza mantentzen da** (jangela, garraioa).
- Eskaintza horrek ekarpen bat egin behar du ikasle **GUZTIEK** hezkuntza-arrakastaren bidea urra dezaten.
- Gelako erritmoa jarraitzeko arazoak dituzten ikasleei laguntza pertsonalagoa emanaz arloko gutxiengoko konpetentziak lortzea.



# HELBURUETAN SAKONDUZ

---

---

- Ditugun **baliabideak** (gelak, liburutegia, informatika gela, ordenadoreak,...) ikasle guztien eskura jartzea, etxerako lanak egiteko, talde zein bakarkako lanak egiteko....
- Gelan egiten den lanetik haratago sakontzea, horrela nahi duten ikasleekin, haien interesetara egokituz lana eginez, **bikaintasunaren** bidetik, eta **talentua** sustatuz.
- Bakarkako tutoretzan sakontzea, ikasleen erantzukizuna eta motibazioa indartuz.



# HELBURUETAN SAKONDUZ

---

- Familien eta ikasleen intereseei erantzungo dieten ekintzak eskaintzea.
- Familien parte-hartzea bermatzea, HAUSPOA arratsaldean kudeaketa partekatua bultzatuz, **guraso elkarteak antolatutako ekintzak txertatuz eskaintzan.**
- Ikastetxeko hobekuntza plana kontuan izanik jarduera desberdinak antolatzea.





# HELBURUETAN SAKONDUZ

---

---


- Helburua ez da denbora librea ematea ikasleei, baizik eta malgutasunez antolatutako arratsaldeak eskaintzea, euren intereseei egokituta.
- Hezkuntza sistemak ezarritako eskaintzak ez du asebetetzen gure ikasleen jakinmina. Curriculumak erantzuten ez dituen interes horiek kontutan hartuko dira tailerrak diseinatzeko momentuan, ikasleen iritzia edota ekarpenak aintzat hartuz.



# ANTOLAKUNTZA BERRIA

---

- Bi jarduera mota: **ORDUTEGIAK**
  - irakaskuntza arautua (derrigorrezkoa ikasleentzat): 30 ordu goizez
  - ordutegi osagarria: 6 ordu astean (180 ordu urtean)
- Antolaketan argi bereiztuta:
  - Goizez saio lektibo guztiak , 8:00- 14:00.  
Jolastordua 10:45 – 11:15
  - 14:00 - 15:00 Bazkalordua
  - HAUSPOA 15:00 – 16:30  
Adibideak: Errobotika tailerra, First Certificate, Mitologia, Errefortzu tailerrak...





# BI MOTATAKO PARTE-HARTZEA

---

---

## **1. Curriculuma aberasteko eta talentua sustatzeko tailerrak:**

**Ikasleen parte hartzea sustatuko da eskola eta familien aldetik.**

Talde ezberdinetako ikasleek, elkarrekin, gustuko ekintzak burutzeko aukera izango dute elkarbizitza aberastuz. Adiskidetasuna eta lankidetzaren bultzatuko dira ikasleen artean, gustu bereko ekintzetan elkarrekin arituko baitira. Ikasleen parte-hartzea sustatuko da, hau indartuz, proiektua eskolan errotzeko helburuarekin.



## BI MOTATAKO PARTE-HARTZEA

---

### 2. **Errefortzu tailerrak:**

Aurreko urteko irakasgairen bat edota ebaluazioren bat gainditu gabe duten ikasleek **derrigorrez** hartuko dute parte, baita irakas taldeak antzematen dituen ikasleek ere. **Konfinamenduaren ondorioz laguntza espezifikoa** behar duten ikasleak ere derrigortuta egongo dira.



# JARRAIPEN ETA HOBEEKUNTZA

## BATZORDEA

---

---

Hezkuntza komunitate osoa biltzen duen proiektua izanik, hauek izango dira proiektuaren jarraipena egingo duen batzordea osatuko duten partaideak:

- Zuzendaria
- Irakasle arduraduna
- Guraso bat
- Ikasle bat
- Berritzeguneko erreferentea
- Ikuskaria